

IZENBURUA

BALLETAREN ERAGINA HAURREN AUTOESTIMUAN

EGILEA: Demon Fernández, Iban.

ZUZENDARIA: Lopez de Sosoaga, Alfredo.

2019

LABURPENA

Ikerketak Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko haurren autoestimua neurtzen du. Horretarako, adin ezberdinetako 230 haur kontuan hartu dira. Autoestimua neurtzeko EDINA izeneko galdetegi balioetsia erabili da. Egindako ikerketak dantza egiten duten umek dantza egiten ez dutenek baino autoestimu gehiago daukatela erakusten digu.

HITZ GAKOAK: dantza, autoestimua, dantzaren onurak, galdetegia, dimentsioak.

RESUMEN

La investigación mide la autoestima de niños y niñas del primer ciclo de primaria. Para ello, se han tenido en cuenta a 230 niños y niñas de diferentes edades. La medición de la autoestima se ha conseguido mediante el cuestionario validado EDINA. La investigación hecha nos demuestra que quienes realizan danza tienen más autoestima que quienes no la llevan a cabo.

PALABRAS CLAVE: danza, autoestima, beneficios de la danza, cuestionario, dimensiones.

ABSTRACT

The research measures the self-esteem of children in the first cycle of primary school. To this end, 230 children of different ages have been taken into account. The measurement of self-esteem has been achieved through the validated EDINA survey. The research shows us that those who perform dance have more self-esteem than those who do not.

KEY WORDS: dance, self-esteem, benefits of dance, survey, dimensions.

1. SARRERA.....	3
2. OINARRI TEORIKOA	4
2.1. ZER DA DANTZA.....	4
2.2. DANTZAREN HASTAPENAK.....	4
2.3. DANTZA MOTA DESBERDINAK	6
2.3.1. DANTZA FOLKLORIKOA	6
2.3.2. DANTZA SOZIALA	6
2.3.3. BALLETA	7
2.4. DANTZAREN ONURAK.....	7
2.4.1. ONURA FISIKOAK	7
2.4.2. ONURA EMOZIONALAK	8
2.4.3. ONURA SOZIALAK	8
2.4.4. ONURAK GIZAKIAREN GARAPEN KULTURALEAN.....	8
2.4.5. ONURAK KREATIBITATEAREN GARAPENEAN.....	9
2.4.6. ONURA PSIKOLOGIKOAK	9
2.4.6.1. GARUNA SASOIAN MANTENTZEN DU. GARAPEN KOGNITIBOA	9
2.4.6.2. ONGIZATE MENTALA HOBETZEN ETA GAIXOTASUNA MENTALAK MURRIZTEN.....	9
2.4.6.3. AUTOESTIMUA HOBETZEN DU	9
2.4.7. LABURBILDUZ	9
2.5. AUTOESTIMUA	10
2.5.1. AUTOKONTZEPTUA ETA AUTOESTIMUA.....	10
2.5.2. AUTOESTIMU NEGATIBOA ETA POSITIBOA.....	10
2.5.3. AUTOESTIMUA NOLA HOBETU	11
2.6. DANTZA ETA AUTOESTIMUA.....	12
3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	13
4. METODOLOGIA	14
4.1. IKERKETAREN LAGINA	14
4.2. BALIABIDEAK.....	16
4.3. PROZEDURA: DATUAK BILTZEA	16
4.4. DATUAK ANALIZATZEN	16
4.5. ARLO ETIKOA	19
5. EMAITZAK	20
5.1. DIMENTSIO KORPORALEAN.....	21
5.2. DIMENTSIO PERTSONALEAN.....	22
5.3. DIMENTSIO AKADEMIKOAN.....	23
5.5. DIMENTSIO SOZIALEAN.....	25
6. ONDORIOAK	26
7. HOBETZEKO PROPOSAMENAK	27
8. BIBLIOGRAFIA.....	28
9. ERANSKINAK.....	30

1. SARRERA

Orain dela 17 urte hasi zen dena, bost urte besterik ez nituela. Ibiltzea, korrika egitea, salto egitea, baloiak jaurtitzea eta bestelako mugimenduak, dagoeneko ezagunak ziren niretzat. Egurrezko zorua zeukan gela zabal horretan egindakoak, aldiz, berriak ziren guztiz; hankak gora eta behera, oinak eta behatzak luzatu, belak tolestu, besoak hankekin koordinatu edo gira eta bira arraroak. Aipatutako guztia eta askoz gehiago musikarekin batera mugitzen nintzela. Balleta.

Gimnasio txiki batean dantzatzen hasi eta Suitzan mundu osoko jendearekin dantzatzen bukatu nuen. Denbora-pasa xumea zen hori bidai kide, giharrak erreminta eta garuna motorra bihurtu ziren. Hala ere, 19 urterekin bizkarra apurtu eta errotik bukatu zen nire ibilbidea. Hasieran hankaz gora ikusi nuen nire mundua, baina pixkanaka-pixkanaka puzzleko piezak kokatu ditut eta ohartu gabe Lehen Hezkuntzako gradua bukatzeaz nago.

Gai hau aukeratzearen arrazoia ez da bakarrik dantzarekin izan dudan harreman hurbila. Gai hau aukeratzeko arrazoia, dantzarekin berriro adiskidetzea izan da, dantza den modukoa ikusteko eta nire buruak dantzaz osatu duen irudia ezabatzeko.

Dantza utzi nuenetik dena txarrera joango zenaren ustea nuen, baina magisteritzak pentsamolde hau burutik kentzea lortu zuen. Dantzaz gain, badaude gustatzen zaizkidan beste hainbat eta hainbat gauza eta irakastea hauetako bat da. Gainera, GrAL honi esker gustuko nuena eta orain gustatzen zaidana bateratzea lortu dut, gustatzen zitzaidan horrekin berriro ere harremanetan jarritz.

2. OINARRI TEORIKOA

2.1. ZER DA DANTZA

Harluxet hiztegiak (2018:387) *dantza* “Gorputz-higidura kateatuen segida, doinu baten erritmoari jarraituz eta eredu batzuen arabera egiten dena” eta *dantza egin* “Musikak markatutako erritmoari jarraituta gorputza mugitu” bezala definitzen ditu. Horregatik, dantza eta dantzatu hitzak ez ditugu desberdinduko. Bi hitz hauek sinonimoak dira gure hizkuntzan. Bestalde, gazteleraz dantzatu hitzak (bailar) jatorri ezezaguna dauka. Batzuk *dancier* (gaur egun *danser*) hitz frantsesetik datorrela esaten dute. Beste batzuentzat aldiz, Alemaniatik datorren *danson* (luzatu) hitzan dauka jatorria (Fernández Rubí, 1999: 17).

Dantza norbanakoaren sentimenduak adierazteko edo gizartearen eta kulturaren ikur gisa, gorputz atal batekin edo gorputz guztiarekin erritmo edo konpas bati jarraituz burutzen den mugimendua da. Horrez gain, dantza zeinetan dantzariak mugimenduen bitartez sentimenduak eta emozioak aditzera ematen dituzten, hitzik gabe komunikatzeko modua ere, bada (Martinez Jurado, 2016).

Euskal kultur erakundearen esanetan (2008):

Munduan ez da dantzatzen ez duen herririk. Dantza gizon-emakumeok gorputzaren bidez komunikatzeko eta espresatzeko dugun beharrari ematen diogun erantzuna da.

Gainera, dantzak kasu askotan teknika zehatz batetik abiatu eta estetika bat (estiloaren arabera) bilatzen du, sorkuntza artistiko eta gertakari kulturala izatera iritsiz (Megías Cuenca, 2009).

Dantzaren beste ezaugarri bat da Cervera Salinasek eta Rodriguez Muñozek (1999, in Megías Cuenca, 2009: 32 -tik hartuta) esandakoa: *El acto y el arte de la danza no han de entenderse como meros procesos técnico-artísticos, como un simple virtuosismo corporal, sino que revelan categorías de lo perceptivo, lo sensitivo y lo intelectual.*

Hiztegian agertzen diren definizioak edo gaiaren inguruko aditu batzuk esaten dutena ez dira nahikoak dantzaren esanahia ulertzeko, dantza teoria hutsetik haratago baitoa. Dantza gorputza areagotzea da (Nancy, 2007). Dantzari bakoitzak esangura desberdina ematen dio dantzari. Dantza.es web orrian dantzari ezagun batzuei egindako elkarrizketek argi uzten dute esandakoa:

- *...es algo para mostrarse, para felicidad, para ser quién eres No necesito más legado que poder tocar el corazón y la fibra sensible del espectador* (Lacarra, 2017).
- *... una gran satisfacción...* (Barberá, 2007).
- *No concibo la vida sin ella... le da un sentido a mi vida, me hace sentir que soy necesaria* (Alonso, 2013).
- *Me pareció fascinante desde el primer día: desde entonces hasta hoy* (Yebra, 2017).

Dantzari bakoitzak dantzaren ikuspegi bat daukan moduan, niretzat dantza burua mundu errealetik aldentzeko, zeinetan arazoak albo batera geratzen diren, modua da.

Dantza zer den jakinda, dantzaren hastapenak zeintzuk diren jakitea beharrezkoa da aurrerago emango diren azalpenak hobeto barneratzeko. Beraz, ulertzekoa denez, hurrengo puntuan dantzaren jatorria zein den azalduko da.

2.2. DANTZAREN HASTAPENAK

Dantza nola sortu zen ezezaguna da. Argi dagoena da, dantza instintu bat dela. Haur txiki bati musika jarriz gero, senez bere eskuak edo oinak mugitzen hasiko da. Ibiltzen ikasi baino lehen ahal duen moduan dantzatuko du. Beraz, dantza gai oso zabala da, dantzatzea gizakia bezain zaharra delako (Fernandez Rubí, 1999: 16).

Dantzaren sorrera ezezaguna den arren, dantza gizadiaren jatorrian aurki dezakegu. Antzinako gizon-emakumeak oso goiz hasi ziren dantza naturaren indarrekin komunikatzeko erabiltzen (Montem, 2016: 1). Gainera, *homo sapiens*-ak dantza errituak egiten zituen bizitzako gertaerak adierazteko.

Dantzaren jatorria ezezaguna den arren, dantza artetzat hartzen lehenengoak grekoak izan ziren. Dantza, musikarekin eta poesiarekin batera ezinbesteko osagaia bihurtu zen tragedia grekoetan (Álvarez, 2016: 3).

Antzinako Erroman dantzak balore soziala eta garrantzia galdu zituen. Horrez gain, garai hartako kristautasun-pentsamoldea zela eta, gizonek dantzatzea homosexualitatearekin lotzen zen. Geroago, erdi aroan, dantza garapenetik baztertuta eta ia debekatuta geratu zen ematen zitzaion konnotazio sexualarengatik (Alvarez, 2016).

Pixkanaka-pixkanaka Erdi Aroko gizartea aldatuz eta eboluzionatuz joan zen. Sentimendu erlijiosoa gutxitzen da eta dantza debekatu zuen eliza kolokan jartzen da. Errenazimenduan gaude. Garai honetan dantza popularrak eta nobleen dantzak bata bestearen ezaugarriak hartuz bateratzen hasten dira. Hau gertatzearen arrazoia, garaiko jakintsuek Biblian eta Ebanjelioan agertzen diren dantzaren ingurukoak ez baztertzeko da (Cabrera, 2012: 15).

Denborarekin Europako gorteek beste herrialdeetako enbaxadoreak harritzeko eta lausengatzeko asmoarekin, dantza erabiltzen hasi ziren. Handitasunezko giro hau dela eta, Frantzia *ballet comique* izenekoaren sorrera posiblea izan zen. Urteen poderioz ballet honek garrantzia galdu eta gainbehera izan zuen. Dekadentzia hau Giulio Mazarino italiarrarekin baratu zen. Honek entretenimendu gortesauetara garrantzia handia ematen zien. Mazarino hil ondoren, Giovanni Battista Lully italiarrak gortean egindako berriztatzei esker, dantzak arte eszeniko bezala ibilbide geldoa hasi zuen (Abad Carlés, 2004: 148).

Mazarino eta Lullyrekin Errenazimendua atzean utzi eta Barrokoan sartu gara dagoeneko. Mende honetan Luis XIV Frantziako erregea (1643-1715) izango zena jai egiten da. Luis XIV-ren erregealdian, Eguzki erregea izenaz ezaguna, dantza jaunen hezkuntzaren parte bihurtu zen, belle danse (arte aristokratikoa) garatu eta hedatu eta lehen profesionalak agertu ziren. Horrez gain, Dantza Akademia Errealaren sortzailea izan zen. Errege honekin dantza ibilbidearen etapa berri bat irekitzen da (Alemany Lázaro, 2009: 94).

Momentu honetatik geroztik dantza gero eta gehiago garatuz doa. Gaur egun oraindik ere ezagutzen eta martxan dauden eskolak sortu (Théâtre National de l'Opéra de Paris eta Marinsky) eta dantzari esanguratsu asko trebatu ziren (Idem: 94). Bestalde, balleta ez diren beste dantza estilo batzuk sortu ziren; esaterako, dantza kontemporaneo, Isadora Duncan-en (1878-1927) eskutik. Honek dantza asaldatu zuen; oinutsik dantzaten zuen eta kortserik edo garaiko dantza klasikoaren elementuak ez zituen erabiltzen. Mugimendu askearen loria aldarrikatu zuen teknika klasiko zorrotzaren aurka eta askoren irudimena piztu zuen, batez ere Amerikan eta erdialdeko Europan.

Duncan revolucionó la danza e hizo una gran carrera en Europa... No poseía una gran técnica, pero sí grandes dotes artísticas. Duncan parecía la encarnación de la libertad... Fue el faro del mundo de la danza para los que se sentían insatisfechos dentro de los estrechos límites de la técnica clásica (Crisp eta Thorpe, 1981: 51).

Dantzaren eboluzioa ez da gelditu eta XXI. mendean gaudela pentsatu baino dantza mota askoz gehiago daude. Dantza mota hauek hiru talde handitan sailkatuko ditugu: dantza folklorikoa, dantza soziala eta balleta (Fernández Rubí, 1999: 19).

2.3. DANTZA MOTA DESBERDINAK

Jaiotzen garenean, hein handi batean izango garen bilakaera, haziko garen lekuaren kulturak eta gurasoen kulturak baldintzatuta egongo da. Kulturaren arabera pentsamolde, sinesmen, ohitura eta jokatzeko modu bat edo beste bat izango dugu (Mayher, 2016). Beraz, dantza kulturaren arabera izango da.

La historia de la danza no es precisamente un catálogo de pasos. Para entenderla hay que saber dónde y cómo vive la gente, y su forma de vida (Fernández Rubí, 1999:18).

Aurretik esan bezala dantza motak hiru talde handitan sailkatu daitezke. Sailkapen hau Fernández Rubík (1999:19-22) azaltzen duena da. Aipatuko ditudanak munduan dauden dantzen ehuneko txikia besterik ez da, burua kokatzeko eta azalduko dena hobeto ulertzeko baliagarria besterik ez.

2.3.1. DANTZA FOLKLORIKOA

Pertsona arrunten artean sortu eta herriaren sentimenduak adierazten dituena.

- **Bharata Natya:** Indiako hegoaldean ematen den dantza.
- **Bourrée:** XVI. mendetik ezagutzen den dantza frantses bizia.
- **Branle:** XVI. Mendean gorteko dantza bihurtu zen nekazarien dantza.
- **Colo edo kolo:** Jugoslavian oso famatua den baserritarren dantza.
- **Contredanse:** Bikoteak aurrez-aurre jartzen diren dantza popularra.
- **Cueca:** Txileko dantza nazionala.
- **Czardas:** Dantza folkloriko hungariarra.
- **Chotis:** Jatorri alemaniarra duen eta bikoteka dantzaten den dantza.
- **Farandole edo Farandola:** Provenzako dantza popularra.
- **Flamenkoa:** Andaluzian sortu zen dantza.
- **Gopac:** Ukrainan jatorria daukan dantza folkloriko errusiar bizia.
- **Hula-Hula:** Hawaiiiko dantza errituala.

- **Jota:** Espainiako dantza folklorikoa.
- **Mazurca:** Jatorri poloniarra duen dantza.
- **Polca edo Polka:** Bohemian jatorria duen dantza.
- **Polonesa:** Dantza poloniarra.
- **Tarantela:** Mugimendu biziko dantza italiarra.
- **Trepak** errusiarra: Dantza.

2.3.2. DANTZA SOZIALA

Dantza aretoetan ematen dena eta plazerrez beteta dagoena. Jatorria dantza folklorikoetan aurkitu daiteke, minué-an esaterako.

- **Conga:** Kuban sortu zen aretoko dantza
- **Charleston:** Hogeigarren urteetan Estatu Batuetan eta Parisen nagusitu zen dantza.
- **Foxtrot:** Estatu Batuetan jatorria duen eta bikoteka dantzatzen den aretoko dantza.
- **Machica:** Brasilen jatorria duen dantza bizia.
- **Manbo:** Hispanoamerikar gizarteko dantza.
- **Minué:** XVII. mendearen eta XVIII. mendean modan egon zen gizarte dantza.
- **Kalejira:** XVII. mendeko dantza espainiarra.
- **Pasodoble:** Espainian sorrera duen baina Frantzian garatzen den aretoko dantza.
- **Rock'n'roll:** Berrogeita hamagarren urteetan oso famatua bilakatu zen dantza.
- **Runba:** Kuban oso ezaguna.
- **Sanba:** Brasileko dantza nazionala.
- **Tango:** Argentinan jatorria duen eta bikoteka dantzatzen den aretoko dantza.
- **Twist:** Amerikan jatorria duen aretoko dantza.
- **Vals:** Bikoteka dantzatzen den areto dantzarik famatuena.

2.3.3. BALLETA

Koreografia, musika eta interpretazioa batzen dituen emanaldi artistikoa.

- **Ballet sinfonikoa:** Mugimenduaren bitartez musika sinfonikoaren gaiak eta ezaugarriak adierazten dituen balleta.
- **Ballet klasikoa edo dantza klasikoa:** Jatorria Frantzian 1581.urtean erreginaren Comedia-ballet errepresentazioarekin ematen da. Gortearen entretenimendu bezala sortzen da. Dantza ikuskizun bihurtzen da. Dantzariak eskola klasikoaren teknikaz baliatuz mugimendu eta pausu tradizionalak burutzen ditu. Dantza klasikoaren irudia María Taglioni izango litzateke, oin puntan ganean dantzatu zuen lehenengo dantzaria. Honen barruan karakter dantzak aurkitzen dira, ballet klasikoaren teknika erabiliz burutzen direnak baina dantza folklorikoetatik etortzen direnak.
- **Ballet erromantikoa:** XIX. mendean azaltzen da. Teknika klasikoa zorrozki errespetatzen da eta momentu bakoitza argumentuaren garapenarekin lotuta dago, zeinetan sentimenduak, magikoa eta naturaz gaindikoa konbinatzen diren.
- **Ballet modernoa edo dantza modernoa:** XX. mendean sortzen da Isadora Duncanen eskutik. Ballet klasikoaren aurka erreakzionatu zuen gorputzaren adierazpen osoa eta irudi berriak sortzeko asmoarekin. Isadora Duncan agertoki

batean oinusten lehenengoa izan zen eta bere esanetan dantza ez luke ikasitako pausuen errepikapena izan beharko.

Aipatutako dantza guztiek onura batzuk dituzte pertsonaren garapenaren zenbait aspektutan. Hauek hurrengo puntuan azalduko dira.

2.4. DANTZAREN ONURAK

Dantzak pertsonaren osotasunean onurak ditu; fisikoan, emozionalean, sozialean, mentalean... (Montem, 2016: 1-8). Robinsonen (2016) esanetan dantza: "Es la expresión física a través del movimiento y el ritmo de las relaciones, los sentimientos y las ideas". Beraz, hau jakinda, laburki eta banan-banan onura hauek zer nolakoak diren azalduko dira.

2.4.1. ONURA FISIKOAK

Dantzak egoera fisiko orokorra hobetzen du (Megías Cuenca, 2009: 84):

- Indar muskularraren handiagotzea.
- Malgutasuna hobetzea.
- Erresistentzia fisikoa hobetzea.
- Funtzionamendu kardiobaskularra handiagotzea.

Dantzak beste ariketa fisikoek baino erresistentzia, indar eta koordinazio maila handiagoa eskatzen ditu. Aipatutakoak umeari koordinazioa eta memoria muskularra irakatsiko dioten mugimendu patroien ikaspenaren bitartez lortuko dira. Dantzak gorputz guztiaren erabilera eskatzen duenez, hau bere osotasunean lantzeko aukera ematen digu (Montem, 2016: 3). *La danza da fuerza, flexibilidad favorece la buena postura corporal y tiene muchos beneficios que la hacen recomendable* (Fuentes, 2009:16).

2.4.2. ONURA EMOZIONALAK

Dantzari esker gaitasun emozionala "(...aquellas habilidades en las que están implicadas la expresión y manifestación de diversas emociones, como la ira, el enfado, la alegría, la tristeza, la vergüenza, etc. Son todas las relacionadas con el "sentir")" (Gil Madrona, Gutiérrez Marín eta Madrid López, 2012: 84) lantzen da. Gainera, umeak haien emozioak adierazteko aukeraz gozaten dute eta mugimendu sortzaile baten bitartez besteen eta haien buruaz kontziente bihurtzen dira. Umeak esperientzia emozional asko bizi dituztela iristen dira dantza klaseetara eta dantzak fisikoki ihes egiteko aukera ematen die: empatia, kooperazioa eta partekatzea bezalako gaitasunak ikasten dituztela. Esandako guztiaz gain, umeek era desberdinetako estimulua jasotzen dituzte musikarekin dantzatzen daudela eta hauei mugimendu eta aurpegi keinu desberdinen bitartez erantzuna ematen diete; hala nola tristura, poza edo lotsa (Montem, 2016: 5).

2.4.3. ONURA SOZIALAK

Dantzak topaketa soziala, interakzioa eta kooperazioa sustatzen ditu. Umeek gorputza erabiliz modu erreal eta berehalako batean besteei ideak jakinarazten ikasten dute. Talde dinamiko batean nola lan egin azkar ikasten dute. Horrelako kooperazio

prozesu batean umeeek haien burua besteenarekiko ezagutzea inplikatzeko du. Esandakoaz gain, dantzak umeari espazioa ezagutzen eta nola erabiltzen irakasten dio: espazioan beste batzuekin batera mugitzea besteen zatia inbaditu gabe. Gainera, enpatia eta partekatze gaitasunen antzeko gaitasun sozialak lortzen dira eta hauek erlazio arrakastatsuak sortzeko beharrezko ezaugarriak dira (Montem, 2016: 5).

Dantza lan kolektibo bezala ikusiz gero, besteekin erlazionatzeko gaitasunak pizten dituela esan genezake. Robinsonen esanetan (1992, in Megías Cuenca, 2009: 86-tik hartuta): “Los juegos grupales favorecen la escucha y el intercambio, la atención y el respeto del otro, la comunicación y la colaboración con vistas a un proyecto común”.

2.4.4. ONURAK GIZAKIAREN GARAPEN KULTURALEAN

Gizateriaren lehenengo dantzariak apaizak eta gerlariak izan ziren. Hauek naturaren indarrak deitzen zituzten, gaitzetatik babestuak egoteko laguntza eskatuz. Dantzak artea sortu zuen eta berarekin batera musika etorri zen. Dena eskutik etorri zen. Lehenengo gizakien artean artistek bizirik irauteko aukera gehiago zituzten, erreminta, erritual eta ohitura berriak asmatzen zituztelako. Momentu honetatik aurrera dantzak gaur egungo kultura askotan irauten duen esanahi mistiko-erlijioso hartu zuen. Gaur egun, aldiz, dantzak sentimenduak eta gure burua definitzeko balio digu. Bizitzeko modu bat edo zaletasun bat izan daiteke, baina dantzak urtero ematen dizkio artista berriak munduko kulturari (Montem, 2016: 6).

2.4.5. ONURAK KREATIBITATEAREN GARAPENEAN

Dantzaren helburu nagusienetako batzuk norbanakoaren adierazpenaren bilaketa, kreatibitatearen susperketa, gatazken konponketa eta sentimenduen adierazpena izango lirarteke (Torrents Martín et al, 2008: 5).

Imitazioaren bidezko irakaskuntzak gaitasun fisiko espezifikoen ikaskuntza bermatzen du, baina motibazio gutxi eskaintzen dio ikasleari. Hau dela eta, irakasleak ikasleari kuriositatea pizten dion erronka motor bat proposatu behar dio, dantzak kreatibitatearen garapenari mesede egin diezaion. Irakasleak hau egitekotan eta lortzekotan, ikasleen mugimendua esanahi pertsonal batekin eta kreatibitatearen garapenarekin lotuta etorriko da (Moreno Bonilla, 2006: 23). Bestalde, ezin dugu ahaztu, kreatibitatearen garapenean eragina izan dezaketen eragile asko daudela. Sternbergen eta Lubarten esanetan (1997; Moreno Bonilla, 2006: 23): “Para ser creativos es preciso tener muchas cosas desde las que entusiasmarse”.

2.4.6. ONURA PSIKOLOGIKOAK

2.4.6.1. GARUNA SASOIAN MANTENTZEN DU. GARAPEN KOGNITIBOA

Dantza burmuinerako ariketa bikaina da. Edozein dantza motatan ikasten diren mugimendu-patroiak burmuina estimulatu eta aktibo mantentzen laguntzen dute. Honi esker, garuna sasoiari mantentzen da (Buades Giménez eta Rodríguez Blanco, 1999: 81-95).

2.4.6.2. ONGIZATE MENTALA HOBETZEN ETA GAIXOTASUNA MENTALAK MURRIZTEN

Dantzak haurtzaroan estresa eta emozio negatiboak murrizten eta autoestimua eta konfiantza hobetzen ditu, nerabezaroan bizi kalitatea (osasuna, gaitasun funtzionala, erlazio sozialak, ongizate materiala, ongizate pertsonala eta ongizate soziala) eta emozio negatiboak (antsietatea, beheraldiak, etsaitasuna, obsesioa, ideia paranoikoak eta idea psikotikoak) hobetzen ditu; eta helduaroan, aldiz, pairatzen diren gaixotasun mental batzuen murrizketa ekartzen du, gogo-aldarte, energia maila eta erlazio sozialak hobetzeaz gain (Padilla Modelo eta Coterón López, 2013: 193). Autoestimua hobetzea osasun mentalerako onurarik garrantzitsuenetarikoa eta baliagarrienetarikoa da. Autoestimu on batek zenbait gaixotasun mentalen arriskua (anorexia, bulimia eta beheraldia) murrizten du.

2.4.6.3. AUTOESTIMUA HOBETZEN DU

Dantza autoestimua hobetzeko eta gaitz hauek urrun mantentzeko tresna bikaina da, dantzak pertsona bati bere itxura fisikoarekin eta gorputzarekin eroso sentitzera laguntzen diolako. Bestaldetik, dantzak dituen gaitasun sortzaileak eta dantza gehienetan pertsonak haien benetako “*nia*” adierazteko aukera denez, pertsonaren autoestimua hobetzen da dantzaren bitartez (Montem, 2016: 4).

2.4.7 LABURBILDUZ

Dantzak odol-zirkulazioa aktibatzen eta hobetzen, biririk sendotzen, presio arteriala erregulatzen, giharrak eta hezurak sendotzen, osteoporosia pairatzeko arriskua murrizten, artikulazio guztien elastikotasuna hobetzen, errazago lo hartzen, garuna sasoiari mantentzen, energia handitzen, autoestimua eta segurtasuna hobetzen, talde baten parte hartzen sentitzen, arazoak denbora batez ahazten, sentimenduak modu naturalago batean adierazten, frustraziotik, bakardadetik eta beheraldietatik aldentzen, lasaitzen eta ilusioa berreskuratzen, erlazioak mantentzen, integrazio soziala hobetzen, tentsioak deskargatzen eta kontzentrazioa, memoria eta interesa hobetzen laguntzen gaitu (Buades Giménez eta Rodríguez Blanco, 1999: 94-95).

Aurretik azaldutakoa kontuan izanik, dantzak autoestimua hobetzen laguntzen duela badakigu. Hala ere, autoestimua inguruan ezer gutxi dakigu. Hau dela eta, terminoaren esanahia eta honen nondik norakoak aztertuko ditugu hurrengo puntuetan.

2.5. AUTOESTIMUA

2.5.1. AUTOKONTZEPTUA ETA AUTOESTIMUA

Autokontzeptua eta autoestimua terminoak askotan modu oker batean sinonimotzat hartzen dira, baina bi hitz hauek esanahi desberdineko terminoak dira. Autokontzeptua pertsonak bere buruaz hiru dimentsiotan (kognitiboa, pertsonak bere buruaz egiten dituen eskema guztiek osatzen dute, afektiboa, autoestimuari dagokio eta konportamendua, bakoitzak bere buruaren edo besteen onarpenaren inguruan egiten duen bilaketari dagokio) eta hainbat arlotan (lana, eskola, familia, erlazio sozialak, itxura fisikoa eta moral-etikoa) egiten duen deskribapen mentalari egiten dio so. Autoestimua

aldiz, pertsonak aipatutako arlo desberdin hauetan daukan irudiari egiten dio erreferentzia (Buena-Casal, Fernández-Ríos eta Carrasco Giménez, 1997).

Por autoconcepto podemos entender la representación mental que el sujeto hace de sí mismo, mientras que la autoestima sería la dimensión evaluativa de esa representación (Blascovik, Tomaka, Buena-Casal, Fernández-Ríos eta Carrasco Giménez, 1997: 138).

Autokontzeptu hitzak buruaren deskripzio abstraktuei egiten dio erreferentzia. Autoestimua, aldiz, bakoitzak bere buruz daukan kontzeptuari, modu subjektibo batean baloratzen dena, egiten dio aipamen. Beste egileek, ordea, diote:

El sujeto se valora a sí mismo, según unas cualidades que provienen de su experiencia, y que son consideradas como positivas o negativas. Así, el concepto de autoestima se presenta como la conclusión final de este proceso de autoevaluación y se define como la satisfacción personal del individuo consigo mismo... (Cava eta Musitu, 2000: 17).

Azaldutako guztia aintzat hartuta, pertsona bakoitzak bere buruaren inguruko kontzeptu bat daukala, eta horren arabera bizitzaren arlo garrantzitsu desberdinetan (esparru familiarra, akademikoa, fisikoa edo kognitiboa) gure buruaren inguruko balorazio bat daukagula esan beharra dago. Beraz, pertsona batek esparru familiarrean kontzeptu oso ona izan dezake eta esparru akademikoan, aldiz, oso txarra (Cava eta Musitu, 2000).

Es conocerse así mismo, es la función de velar por uno mismo, es autodefenderse, valorarse, autoestimarse y autoobservarse. La autoestima es aprender a querernos, respetarnos y cuidarnos. Depende esencialmente de la educación en la familia, la escuela y el entorno. Constituye una actitud hacia sí mismo (Hernández eta Padrón, 2004: 84).

Autoestimua zer den azalduta, bi autoestimu moten (baxua eta altua) ezaugarriak aipatuko ditut hurrengo puntuan.

2.5.2. AUTOESTIMU NEGATIBOA ETA POSITIBOA

2.5.2.1. AUTOESTIMU NEGATIBOA

Pertsona baten autoestimua baxua izateko arrazoiak pentsatu baino gehiago dira, adina edozein dela ere. Horregatik, Rojasen (2013: 25) esanetan, ohikoak zeintzuk diren aipatuko ditugu:

- **Hurtzaroen zehar familiarren giro toxikoa:** gurasoen exigentzia maila altua izan badute hurrekin une oro, eta honi laguntza eman ez badioten, dituen gaitasun ezberdinez zalantza egitea oso normala da.
- **Escolaren giro txarra:** Haur bat escolan ikaskideen irainen eta trufen jomuga izatekotan, nerabearen eta helduaren segurtasun eza eta konplexuak oso ohikoak dira.
- **Autokritika eta perfekzionismo gehiegi:** pertsonak batek bere buruari gehiegi eskatuz gero, hau da, autokritika eta perfekzionismo maila oso altua izanez gero, askotan bidetik geratuko da helburua ez lortuz. Honek autoestimu baxu bat ekarriko du.

- **Zalantza patologikoa:** ziurgabetasun kronikoak konfiantza ez izatera eramango du pertsona. Talentu handiko pertsona asko ez dira ezertara iristen porrot egiteko beldurragatik.
- **Kritikatua izateko beldurra:** egiten duguna egiten dugula ere, beti egongo da gure ekintzekin pozik egoten ez den norbait. Kritikatu egiten gaituzten horiei soilik kasu eginez gero, gure buruari mesede gutxi egiten egongo gara. Bestalde, besteak pozteko jarduten bagara, besteenganako dependentzia sortzen egongo gara.
- **Sentikorregia izatea:** mundu guztiak gure buruz esaten duena sinistuz gero, eta esandako hori min eman ez gero, guru buruan konfiantza galtzea oso ohikoa izango da.

2.5.2.2 AUTOESTIMU POSITIBOA

Autoestimua baxua izateko arrazoi batzuk dauden bezala, autoestimua positiboa izateko zenbait arrazoi ere badaude. Hurrengo lerroetan López Graciaren (2005) esanetan, autoestimua altua duen pertsona baten ezaugarriak zeintzuk diren aipatuko ditugu:

Aurreiritziak erabili beharrean sena eta pertzepzio erabiltzen ditu, ez ditu besteak mehatxatzen eta ez da mehatxatuta sentitzen, bizitzaren zentzua pertsonak berak eta ez beste norbaitek erabakitzen du, bizitzaz ikasten du eta ez dio ikasteari uzten, bere sexua onartzen du, ez ditu erlazionatzeko arazoak izaten, ikasten duena edo bere lana gustuko du, bere burua maitatzen du, bere burua eta besteena errespetatzen ditu, besteengan eta bere buruan konfiantza dauka, bere sentimenduak ezagutzen eta adierazten ditu, erabakiak hartzen ditu, bere akatsak onartzen ditu, bere erantzukizunak onartzen ditu, bere burua ebaluatzen du, eta abar.

2.5.3 AUTOESTIMUA NOLA HOBETU

Branden (2009: 4-55) psikoterapeuta kanadiarrak autoestimua hobetzeko, helburua aurretik aipatutako autoestimua altua lortzea izanik, hainbat jarraibide edo metodo daudela adierazten du. Hauek, laburki azalduta hurrengoak dira:

- **Bakoitzak bere buruaz duen kontzeptua hobetzea:** zer eta zer egiteko garen jakitea, bai kontzienteki bai inkontzienteki; aurpegiera fisikoak, gaitasunak, hutsuneak... Gure buruaz dugun irudiak modu batean edo bestean bizitzan hartuko ditugun erabaki guztietan eragina izango du. Beraz, sortuko dugun bizimodua honen arabera izango da. Horregatik, gure buruaz dugun irudia hobetzea ezinbestekoa da.
- **Ezageraz bizitzea:** kontzienteki bizitzea gure ekintzetan, helburuetan, balio etikoetan... eragina duen oro ezagutzea eta dakigun eta ikusten dugunaren arabera jardutea da. Vivir conscientemente es vivir responsablemente para con la realidad (Branden, 2009:32).
- **Gure burua onartzen ikastea:** onarpen eta onarpen eza kontzeptuei garrantzia kendu behar zaie, jakin eta ezagutu kontzeptuei garrantzia eman. Gure burua den bezalakoa onartu behar da, bai dituen bertuteekin bai dituen akatsekin. Sentitzen duguna eta garena onartuz gero, gure hautaketan eta ekintzen jabe izango gara, kontzienteak izango gara.

- **Errudun sentitzeari utzi:** gure jarreraren inguruan pentsatzea eta hau aztertzea ezinbestekoa da, batez ere gure buruari errua leporatzen diogunean. Hau gertatzen denean buruari hainbat galdera egin eta errua gurea zenbaterainokoa den jakin beharra dago.
- **Modu arduratsu batean bizitzea:** bizitzako erantzukizunei aurre egin behar zaie, baina gure esku dagoena eta ez dagoena ezagutu beharra dago. Bestalde, ezin dugu ahaztu gure ekintzen eta jarreraren erantzuleak garela.
- **Benetako modu batean bizitzea:** autoestimua kolokan jartzen duten gezurrak bizitzen ditugunak eta ez esaten ditugunak dira. Gezur batean bizitzen gara gure errealitatearen esperientzia edo gure izaera desitxuratzen ditugunean. Autoestimu positibo bat izateko barruko "nia" eta munduaren aurrean ikusgai dagoen "nia" berdinak izan behar dira.
- **Besteen autoestimua garatzea:** beste pertsona baten autoestimua igotzen dugunean gure jarreraren eta ekintzen bitartez, gure autoestimua handitzen ari gara.

2.6. DANTZA ETA AUTOESTIMUA

Autoestimu positibo bat daukan pertsona batek bere pentsamenduak eta sentimenduak partekatuko ditu hauek ezkutatu gabe eta besteen afektuaren, gorespenaren edota atentzioaren beharrezana ez da hainbestekoa izango. Horregatik, autoestimu ona oso txikitatik garatzea ezinbestekoa da. Hau lortzeko tresna bikaina dantza da, besteen mugimenduaren erreflexuak, kontaktu fisikoak eta artikulazioen eta giharren aktibazioak, pertsona batek bere buruan konfiantza eta bizi duen errealitatean konfiantza izatera, bere burua onartzera eta maitatua sentitzera laguntzen duelako (Wengrower eta Chaiklin, 2008).

Bestalde, dantzak lidergo gaitasuna lantzen du norbanakoan. Lidergoa autoestimua, autokontzeptua eta mugimenduaren benetakotasuna lantzen duen pertsonalitatearen nolakotasuna da. "Quien lidera aprende a asumir la responsabilidad de las decisiones que toma, como la dirección, la dimensión y la forma de su movimiento, o el ritmo en el que lo hace" (Idem: 115). Ardua hau dantzaren eta mugimenduaren bitartez onartzean, gaitasun sortzaileen eta gure askatasunaren kontzientzia gehiago izango dugu.

Esandako guztiaz gain, dantza, erresilientzia edo "la capacidad del ser humano para hacer frente a las adversidades de la vida, aprender de ellas, superarlas e inclusive ser transformados por éstas" (Henderson, 2006: 18) lantzen du, autoestimuekin eta frustraziorako tolerantziarekin oso erlazionatuta dagoena.

South-en esanetan (2006: Domínguez Cacho eta Castillo Vera, 2017: 74), dantzak Lehen Hezkuntzan autoestimua eta konfiantza hobetzen laguntzen du. Hau dela eta, erabaki dut esan hauetan eta aurretik aipatutako autore guztien esanetan oinarrituz, burutu dudan ikerketan esandakoa egiaztatzea, hau da, dantzak autoestimuan Lehen Hezkuntzako umeetan eragin positiboa daukala.

3. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

Burutu den ikerketaren helburua dantza egiten duten umeen eta dantza egiten ez dutenen arteko autoestimua alderatzea da. Helburu orokorra autoestimua globala aipatutako umeengan zein den jakitea izan arren, autoestimua dimentsio desberdinak aztertuko dira baita ere. Horrez gain, dantzak zer nolako eragina duen autoestimua dimentsio desberdinetan jakitea bilatzen da, hau da, dantzak autoestimua bost dimentsioetan edo hauek batean eragin zuzena duen ala ez.

Marko teorikoaren azalpen guztietan oinarrituz, dantza egiteak onura fisikoak eta psikologikoak dituela jakin daiteke. Onura psikologikoen barruan autoestimua hobekuntza aipatzekoa da. Beraz, esaten dena abiapuntutzat hartuta, dantza egiten dutenek dantza egiten ez dutenek baino autoestimua altuagoa dutela pentsa genezake. Horregatik, ikerketa honen hipotesia hori izango litzateke:

- Dantza egiten dutenek dantza egiten ez dutenek baino autoestimua altuagoa daukate.

4. METODOLOGIA

4.1. IKERKETAREN LAGINA

Aipatutakoa aurrera eramateko dantza egiten duten 115 ume eta dantza egiten ez duten ume kopuru berdina hartu da lagintzat. Laginak Barakaldon, Bilbon, Gasteizen eta Iruñan hartu dira, eskola eta dantza akademia desberdinetan. Eskolen artean Urretxindorra ikastola, Aita Orbiso Eskola, Ibaibe Herri Ikastetxea eta Alkartu ikastola aztertu dira.

- **Urretxindorra Ikastola:** 1973. urtean sortu zen eta Bilboko San Adriango eta Miribilla auzoen artean kokatuta dagoen ikastola da. 0-18 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago eta Ikastola Elkarteen barruan aurkitzen da. Guztira 23 ikasle.
- **Aita Orbiso Eskola:** CEIP Aita Orbiso LHI eskola 1981-1982. urtean, Lakua-Arriaga auzoaren eta hiriaren iparraldean dauden herrien (Junguitu, Yurre, Aranguiz, Asteguieta,...) heziketa eskariak arduratzeko, EGBko hezkuntza zentro bezala sortu zen. Beranduago, Haur Hezkuntzako F.J. eskolarekin bat egin zuen eta geroago udaleko haur eskolarekin. Honek bi eraikineko zentroa sortzea ekarri zuen. Bata Haur Hezkuntzarako, 2-5 urte eta beste Lehen Hezkuntzarako, lehenengo mailatik seigarren mailara. Guztira 18 ikasle.
- **Ibaibe Herri Ikastetxea:** Ibaibe 1980eko urtarrilean sortu zen "Ikastola Miranda fundazioa" izenarekin. Barakaldo itsasadarraren ezkerrean kokatua dago, Bizkaiko hiriburutik 8 bat km-ra, eta 25 km² baino gehixago azalerarekin. Beurko auzoan dago, ondoan IES Minas eta Beurko BHI ditu. Guztira 37 ikasle.
- **Alkartu ikastola:** 1969. urtean sortu zen. Bizkaian, Barakaldon, Francisco Gómez auzoan aurkitzen da. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza ematen dira, bakoitza eraikin desberdin batean aurrera eramaten delarik. Guztira 37 ikasle.

Dantza akademien artean aldiz, Indoor & Sendoa, Sofia Abaitua, Dantza Eskola Andoni Aresti Landa, Studio Fran Fonseca eta Arabesque hautatu dira.

- **Indoor & Sendoa:** Bizkaian, Barakaldon, Castor Andechaga kalean kokatuta dagoen gimnasio txikia da. Bertan ekintza ezberdinak eramaten dira aurrera: kick boxing, boxeo, spinning, aerobick, pilates, ballet... Guztira 32 ikasle.
- **Sofia Abaitua:** Araban, Vitoria-Gasteizen, Ricardo Buesa kalean aurkitzen da. Dantzaren eta Gorputzaren zainketaren inguruko jarduerak eramaten dira aurrera. Hauek hurrengoak dira: ballet, modern-jazz, hip-hop, funky, sevillanak, pilates eta tonifikazioa eta elastikotasuna talde txikietan. Guztira 11 ikasle.
- **Dantza Eskola Andoni Aresti Landa:** Leioa metro geltokitik bi minututara oinez kokatuta dago, industria pabiloi baten 4.pisuan. Ia 600m² eta 70m leihate dituen espazio gardena da. Hiru dantza gela eta bai ikasleentzako bai gurasoentzako ikasketa gela batek osatzen dute. Guztira 31 ikasle.
- **Studio Fran Fonseca:** Nafarroan, Iruñan, Parque de los Olmos Zizur Mayor kalean aurkitzen da. Tamainaz ez oso handia baino oso abegitsua. Bi gelek osatzen dute. Bertan pilates-a, fitness-a eta balleta irakasten dira. Guztira 27 ikasle.
- **Arabesque:** Bizkaian, Barakaldon, Bizkaia kalean aurkitzen da. Adin guztietarako dantza klasikoa irakasten da. Guztira 14 ikasle.

Esandakoaz gain, laginaren %71,73a neskak direla kontuan hartu behar da. Hau da, 230 ikasletik 165 neskak dira. Mutilak aldiz, %28,27a dira, hau da, 230 ikasletik 65 besterik ez. Hau horrela izatearen arrazoia, dantza egiten dutenen mutil kopurua oso txikia izatea da (11). Aipatutakoa kontuan izan da analisi estatistikoa egiterako orduan.

Mutil gutxi dantza egitearen arrazoia, balleta egiten dutenen mutilen gehiengoa haien senidekoren bati, lagunei edo gizarteari aurre egin behar izatea da. Gainera, dantza egiten duten mutilen %96a eraso fisikoa edo ahozkoa jaso du noizbait (Gormley, 2018).

Aipatu ditugun eskola eta dantza akademietako ikasle gehienek 5, 6, 7 eta 8 urte dituzte, dantza egiten duten 4 urteko bi ikasle kenduta. Hau da, Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleak izango lirateke ia guztiak. Hurrengo taulan ikasleen adina eta ehunekoa adierazten da.

1. Taula: ikasleen maiztasuna adinaren arabera

ADINA	MAIZTASUNA	EHUNEKOA	EHUNEKO METATUA
4	2	0,9	0,9
5	35	15,22	16,12
6	118	51,3	67,42
7	52	22,6	90,02
8	23	10	100
GUZTIRA	230	100	

Iturria. Megías Cuenca, 2009-tik hartuta, egileak moldatuta.

4.2. BALIABIDEAK

Autoestimua neurtzeko erabili den galdetegia Serrano Muñozek (2014) sortutako eta balioetsitako EDINA deituriko inkesta da. Inkesta hau 5 dimentsio ezberdinetako 21 itemek osatzen dute. Hurrengo taulan dimentsioak eta dimentsio bakoitzeko item desberdinak adierazten dira.

2. taula: galdetegiaren dimentsioak eta itemak

DIMENTSIONA	ITEMAREN ZENBAKIA	ITEMAREN DESKRIBAPENA
KORPORALA	1	- Me gusta mi cuerpo
	6	- Me veo guapo o guapa
	16	- Soy un niño limpio o una niña limpia
PERTSONALA	2	- Soy un niño o niña importante
	12	- Siempre digo la verdad
	17	- Me río mucho
	19	- Soy valiente
	21	- Me gusta dar muchos besitos
AKADEMIKOA	3	- Mi maestro o maestra dice que trabajo bien
	8	- Hago bien mis trabajos de clase
	11	- Siempre entiendo lo que el maestro o la maestra me piden que haga
	13	- Me gusta ir al colegio
	18	- Me gustan las tareas del colegio
SOZIALA	4	- Lo paso bien con otros niños y niñas
	9	- Tengo muchos amigos y amigas
	14	- Los otros niños y niñas quieren jugar conmigo en el recreo
FAMILIAKOA	5	- Mi familia me quiere mucho
	7	- En casa estoy muy contento o contenta
	10	- Juego mucho en casa
	15	- Hablo mucho con mi familia
	20	- Me porto bien en casa

Iturria: Berezko elaborazioa. Serrano Muñoz 2014-tik hartuta.

4.3. PROZEDURA: DATUAK BILTZEA

Ikasleek egin beharreko inkesta modu egokian burutzeko eta klaseko egunerokotasuna ahalik eta gutxien oztopatzeko asmoarekin, irakasleekin aurretik hitz egin eta ordurik egokiena adostu zen. Erabakitako orduak, eskola eta ikastola guztietan, jantoki-ordua baino lehen eta patio-ordua baino lehen izan ziren. Dantza-akademietan ordea, klasea hasi bezain laster edo bukatu baino lehen.

Eman beharreko azalpen guztiak hasieran eman ziren eta inkesta osatzen duten 21 galderak banan-banan irakurtzen ziren, ikasle guztiek aldi berean bete zezaten galdetegia. Esandakoa egitearen arrazoia, ume batzuk beste batzuk baino askoz hobeto irakurtzen dutela da. Bestalde, irakaslea albo batean geratzen zen ezer esan barik.

Inkesta 15 bat minututan egiten zen gutxi gorabehera eta hau burutu ahal izateko, eskola eta dantza akademiekin telefonoz hitz egin edo bertara gerturatu zen egingo zenaren inguruko azalpenak emanez. Ondoren, unibertsitateko tutorearen baimena eta inkestaren kopia bat helarazi zitzaizen korreo elektronikoko bitartez edo gerturatuz eta eskura emanez.

4.4. DATUAK ANALIZATZEN

Hasteko, 230 inkestetan lortutako emaitzak excel batean (eranskinak 1) irudikatu ziren. Bertan, item bakoitzari erantzunaren araberrako puntuazio bat eman zaio. Erantzun posibleak hiru ziren: “bai”, “batzuetan” eta “ez”. Baiezkoa izatekotan puntu bat; “batzuetan” bi puntu; eta ezezkoari, aldiz, hiru puntu. Zenbat eta puntu gehiago, orduan eta autoestimua baxuagoa. Beraz, puntu gutxien lortzen dutenek, puntu gehien lortzen dutenek baino autoestimua altuagoa izango dute. Ondorengo taulan galdera bakoitzean lortutako emaitzak adierazten dira (batuketa eginda).

3. Taula: item bakoitzaren puntuazioa

	Emaitzak	
	Dantza BAI	Dantza EZ
Galdera 1	130	157
Galdera 2	148	160
Galdera 3	149	168
Galdera 4	132	133
Galdera 5	121	125
Galdera 6	134	149
Galdera 7	144	152
Galdera 8	147	170
Galdera 9	130	141
Galdera 10	150	158
Galdera 11	158	169
Galdera 12	158	179
Galdera 13	160	183
Galdera 14	150	167
Galdera 15	131	152
Galdera 16	133	142
Galdera 17	141	165
Galdera 18	179	189
Galdera 19	153	152
Galdera 20	158	164
Galdera 21	150	181

Iturria: Elaborazio propioa

Aurrekoa eginda, excel bitartez dimentsio bakoitzak osatzen duen item ezberdinen analisi deskribatzailea egin da. Bertan, item bakoitzaren batezbestekoa, desbideratze tipikoa eta koefizientea adierazi dira.

Hurrengo orrialdean azaldutako analisi deskribatzailea adierazten da. Analisi deskribatzaile horri esker, ikertzen ari garen horren inguruko informazio garrantzitsua lor dezakegu. Bertan, dantzatzen duten ikasleen batezbestekoa eta desbideratze tipikoa baxuagoak direla eta asimetria eta koefizientea, berriz, altuagoak direla ikusten da. Beraz, lortutako datuak, dantzatzen dutenen aldekoak dira.

4. taula: Dimentsio bakoitza osatzen duten itemen analisi deskribatzailea

Dimentsioa	Itema	Dantza egiten duten ikasleak				Dantza egiten EZ duten ikasleak			
		Batezbestekoa	Desbideratze tipikoa	Asimetria	Koefizientea	Batezbestekoa	Desbideratze tipikoa	Asimetria	Koefizientea
Dimentsio korporala	Galdera 1	1.130	0.430	3.434	11.274	1.365	0.692	1.627	1.094
	Galdera 6	1.165	0.417	2.534	6.065	1.296	0.562	1.772	2.192
	Galdera 16	1.157	0.451	2.986	8.394	1.235	0.519	2.171	3.906
Dimentsio pertsonala	Galdera 2	1.287	0.618	1.998	2.633	1.391	0.631	1.379	0.759
	Galdera 12	1.374	0.553	1.149	0.351	1.557	0.716	0.894	-0.515
